

Bilbao, 1934-otsaila-9^aan.

M. L'Abbé PIERRE LAFFITE,

U S T A R I T Z .

Agur.

Orko norbaiten beafetan izanik eta Azkue Jaunaren aipaz, banuen aspaldidanik lefo ok bedoñi zuzentzeko ustea, eta ez nekian nola ausarditu. Baina, Lauaxeta a-diskideak EUZKADI egunkarian idatzia irakurita, bideak efasturik atxemaiten ditut.

Jean Barbier Jauna (G.B.) zenaren "LÉGENDES DU PAYS BASQUE" itzuli ditut Bizkai'ko euskarara, eta iragan urtebete ontan argitaratzen dira astean bein gorago aipatu EUZKADI egunkarian, zefenda bitan: alde batean Lapurdi'ko euskaraz eta bestean Bizkai'ko euskaraz.

Esan beařík ez dut zer asmo edo chede dudan au egiteaz: bizkaitaferi Bidasoz orfitiko euskararen zaletu erazotea. Orko eta emeko itz eta esakerak elgařen ondoan ezafi eta nork bere baitarik aztatze-ko abagunea eran; eta Lapurdi'ko eta Bizkai'ko euskaraen artean den alde andia, ongi oartuz, alde txikia dela edo bederen guri iduritzen zakun baizen andia ez dala erakutsiz, orko euskara emen Bizkai'an erazagutu.

Ezin jasan diteke garai ontan inori aditzea: "Ez dot ori irakurri nai, Gipuzkoarez idatzia dala'ko...edo, Nafarroa'ko euskera "safatuz" ez dodalako ulertzen... edo, Lapurdi'ko "h"-ak zorabiatzen nabelako". Ez geiago olakorik. Elgar ezagutu dezagun eta ezagutze ontarik, elgarenganako maitasun ohea sortuko da, noski. Baina, elgar ezagutze ofetarako bideak efastu beaří dira. Ora nere asmoa.

Nere lan au burutuxea dut, eta orai Barbier'en ipui oriekin liburu txiki bat argitaratu nai dudanez (beti Lapurdieraz eta Bizkaiteraz), jakin nai nuke ea eskualde ortan deus eragozpenik denez nik emen liburu ori ateratzeko. Nik dakidalarik, GURE HERRIA'n argitaratu ziran lenengotz ipui oriek. Gero, Paris'ko "Librairie Delegation"-k egin zuen "edition de luxe" delako bat. Beste inor jabe atera litzaiokeenik ez dakit.

Jean Barbier zenaren gauzak bedořek ofen maitero erabilten dituan ez geroz, badut uste eginen dautala mesede au, eta deus eragozpenik baldin balitz, eragozpen oriek gaindutzeko nola moldatu beař naizen eřanen dautala; nere lana, bada, aren izen ona eta Lapurdi'ko euskara emen edatzeko baita, naiz-ta nere euskara gaizoa olako lan andirik egiteko gai izan ez.

M. Le Chanoine Gratien Adema (1858-1907). M. L'Abbe Jean Barbier (1875-1931) Pierre Laffite. — Uztaritz'eko apezjator onen idazlanak eba-aboko yakuz. Gure adizkide min onet' lanri dafakijo eta egungo egunetan bea besteko asko eztago. Oraingo idaztija, idaztino himifua dan-aren, min ugarija dau. Euzkel-idazle famatu biren bixitza jakinerazi dausku. Adema nor zan eztaķijenik al-da? Bidasoa-z arantza ixan dan olefakari goren-tako bat degu Adema ori. Kalonje aguf-gaři arek euzkerari emon eutsosan igali berezijaķ. Ezkadixan aztu beratzaz.

Eta, Barbier nor'ez ezagutu? Irakuf-gai, ipuin eta bertsoetan zenbat egija dan. Bizkai-aldian ezagutzen dabe, eskafak "Otxolua"-ri, onek bizkayeratu baıdaus-kuz aren "Ichtorio-Michtorio" bafengafi-ķak. Aldizķingijetan, be, Barbier ospetsubak idazten eban batez-bere "Gure Herria"-n. Laffite jaunak gaitzat aftu dauz apez bi ofeik eta soın edera emon dause. Eto-fiko ditranen jakiturireko, be, bialeko lan dogu. Idazti ori nai dannak, eskatu begijo egillari beari, Uztaritz'era. Beste barik bi-dalduko dause.

EUZKADI · Bizkai, Otsaila 7/1934

Beste mesede bat ere galdatzen diot:

Barbier'en ICHTORIO MICHTERIO'etan, "Marro Beltz Ardi" deitu 16'gafen ipuian, esakera au atxemaiten dut Bizkayeratu ezina.: "HASTE ETA GURE!". Beha noña dion:

"Pepe Handik, berehala, beso-gibelka, bere chahakoarekin, "jotzen du sorginetarik bat, eta hortan galtzen.... bere chahakoa. Sorginak ebatsi alahainan!

Egin ahala laster, ichil ichila, berritz bazoazin gure hi "anaiak. Eta Jazarketako ondoraino heldu ere izan ziren, deus "bertzerik gabe.

Bainan gero, han (haste eta gure!) oihu bera berritz ere:

"Hattikun, hai, hai, hai!

- Akhelar, bai, bai, bai."

"Haste", commencement; "gure", Bizkai'ko "gura", ofko "nahi" al da? eta beraz, "sorginak arnoa hasirik, gehiago nahi zutela" erran nai al du? Itzez-itzez zer efan nai dun jakin gura nuke, gelegi gogaiteragitea ez balitz.

Barkatu nere ausardia eta nere esker beroenak lendanez artu.

Eskumun eginez bedo'fen erantzunaren zai gelditzen da,

Gaio tañ Bernarta Hill

Nere zuzenbidea:

BERNARDO MARIA de GARRO,
calle Buenos Aires, 13 - 1º,
B I L B A O

"Otaolua"

Bilbao, 1934 - otsaila - 17'an.

M. l'abbé PIERRE LAFITTE,

U S T A R I T Z .

Aguí.

Mila esker bedoñen idazkiaren alderako. Erdi lotsaturik nago, gai ez izanik, or'en abegi ona izan dudalako. Nere esker'ona, otoi, "Gure Herria"-koetaraio eldu arazi.

Ganeko egunen baten idatziko diot J.B.Barbier apez jaunari. Gaurkoz ezin dut, oso lanpetua bait-nabil.

Adema eta Barbier'i buruz bedoñen bi idaztifo txukun jaso ditut, eta gogoz irakuriren.

Verdes irafkolaren bidez nere "Bijar Donianera" eta "Bertolda eta Bertoldin" igofi dizkiot. Bizkaitar amotuz idatziak omen dira, eta bildur naiz gogoko izango ez ote zaizkon. Baina, "bakoitzak berak aal daunez" erakutsi bea' esker'ona.

Haste eta gure!.- Ederki azaldua! Badugu zer ikasi emengoak or'koen euskaraz.

Esker'ak beñiren-beñi eta ni ere bedoñen eskuko gelditzen naiz al daidan guziraiko.

Jainkoaren baitan, ur'en arte. Aguí.

Gaitar JM